



berriak

OSAKIDETZA

2015/10/19

AZTERKETETARAKO BAIMENAK

Osakidetzako Giza Baliabideetako Zuzendaritzatik Pediatriako Erizainen Espezialitatea lortzeko ez-ohiko deialdirako azterketarako egun bakarreko baimena emateko agindua eman dute. Erabaki honek Osakidetzako Lan-Akordioaren 54. artikulua urratzen du. Ematen du Zuzendaritzak ez duela bere erizaintzak titulazio ofizialik lortzerik nahi.

Osakidetzako Lan-Akordioaren 54. artikulua arabera norbere bizilekutik 150 kilometro baino urrunago azterketa ofizialen bat burutu behar izanez gero bi eguneko baimena dago.

Hala ere, Osakidetzak baimen hau egun bakarrera mugatzen ari da Madrilera Pediatriako Erizainen Espezialitateen ez-ohiko deialdiko azterketara joan behar dutenentzat. Berau ez da azterketa ofiziala ala?

Esan digutenaren arabera baimena ukatzen ari dira 2009ko abenduaren 10eko Bitariko Batzordeko akordio baten arabera, SATSEk eskatutako bileran. ELA ez da Bitariko Batzordearen parte ez zuelako azken Lan-Akordioa sinatu.

Ematen duenez Zuzendaritza honek ez du Osakidetzako erizainek espezialitateak lortzerik nahi.

ELAk Giza Baliabideetako Zuzendaritzari presazko bilera bat eskatu dio hurrengo exijitzeko:

- 2009ko abenduaren 10eko Bitariko Batzordearen Akta berehala argitaratu dezala.
- Azterketa hau egiteko baimena bi egunetara luza dezala.

Era berean, gai honekin egon daitezkeen legezko bideak aztertzen ari gara. Inork interesik badu jar dadila ELArekin harremanetan.

LAPURRETA GEHIAGORIK EZ!!

ELA
EUSKAL SINDIKATUA